

Uxue Carnicer Ayerra

B maila • 2 aipamena

Duela 15 urte Idiazabalen jaiotako ordiziarra naiz. Oso gustuko dut bidaiatzea, baita musika ere. Gaur egun, DHB 3 bukatzeaz nago eta beste kulturak ezagutzeko grinak bultzatu ninduen Afrikan oinarri duen istorio hau idaztea.



SHAIRA

Kaixo; Shaira naiz. Izen arraroa da euskaldun batentzat, bai, baina Afrikatik datorren izena da, ni neu bezala. Swahiliz, poetisa esan nahi du.

Nire herriaren izena ederra da benetan. Afrika erdialdean dagoen herria da. Kongo du izena, baina orain Euskal Herrian bizi naiz, Ordizian, zehatz nahi baduzue. Pentsatzen dut ez dudala neure bizitza guztia hemen emango; urte batzuk igaroko ditut hemen, eta handia egitean, nire herrira itzultzea gustatuko litzaidake. Gustatu baino gehiago, amestu: gogoratzen ez dudan arren, munduan gehien nahiko nukeena baita.

Nondik hasi ere ez dakit, baina, oroitzen dudan lehen gertakaritik abiatuko naiz: Kongo. 2008ko urriko gau ilun bat. Egun luze eta ilun hura bukatzen ari zen, baina, gu oheratzeko prest geunden unean, garrasiak entzuten hasi ziren eta, oihuekin batera, gure etxeko atea bertan behera bota zuten. Nik 6 urtetxo besterik ez nituen eta ez nuen ezer ulertzen, baina, halako batean, amak besoetan hartu eta korrika atera zen etxetik ahal zuen moduan. Nik garrasiak, negarrak, tiroak... besterik ez nituen entzuten. Nora joan jakin gabe, iluntasunean ezkutatzea zen amaren helburu bakarra. Konturatzerako, herritik urrun geunden eta nire senideen arrastoak galduak genituen. Non ote zeuden?

Gelditu orduko, ama negar zotinka hasi zen eta, begietara begira, ni lasaitzen saiatu zen, anai-arreben bila irten behar zela adieraziz. Orduan bai beldurra! Luze baino luzeago egin zitzaizkidan minutu haiek. Ez nekien zer pasatzen zen, ez zer egin; guztiz beldurtuta nengoen eta, okerre, guztiz bakarrik.

Ama bueltan etorri zen, baina ez zen nik espero bezain beste poztu ni ikustean. Hitza galdua zuen eta negar besterik ez zuen egiten; auskalo zer ikusi ote zuen... Gaua elkarri besarkatuta pasa genuen aterperik gabeko iluntasunean.

Eguna argitu bezain laster, ama eta biok ibiltzeari ekin genion. Nik hotz izugarria nuen, nire arropa guztia bustita baitzegoen, eta amak bere zapi koloretsu bat jarri zidan soineko moduan, oraindik ere gordeta dudana. Egun guztia oihanean ibiltzen eman ondoren, izugarri nekatuta, gaua pasatzeko leku apropos baten bila hasi ginen; baita jateko zerbaiten bila ere. Amak palmera hostoekin ohe antzeko zerbait egin zuen eta fruitu gorri arraro batzuk ekarri zizkidan; bera txikia zenean jaten omen zituen.

Horrela, orduak eta orduak ematen genituen oihanean oinez, herriko egoerari ihesi, leku seguru baten bila. Behin baino gehiagotan leku berberetik pasatzen ari ginela ere pentsatu genuen. Ama, bada ez bada, zuhaitz batzuetako enborretan arrasto txikiak egiten hasi zen, gerora gure etorkizuna baldintzatuko zuten arrastoak.

Bidean, gure egoera berean zeuden beste familia batzuekin egin genuen topo: agureak, gazteak, umeak... bereziki emakumeak. Baina, amak etsaiak ikusten zituen non-nahi, ez baitzen erraza beharraren beharrean inor ez erasotzea. Amak ni salbatzearen edozer gauza egingo luke!

Nekeak jota, atsedean hartzera geratu ginen erreka ondo batean. Paraje ederrak ziren. Eguraldia ere, lagun. Eta agian gehiegi lasaitu ginen unean, motor hots batzuk entzun genituen. Ez genuen erreakzionatzeko denborarik izan eta, konturatzerako, auto barnean geunden beso eta hankak lotuta.

Ama negarrez, leku itxi eta iluna, usaina ere nekez arnasteko modukoa. Sokek egindako urratuengatik eskuetan izugarrizko mina. Irratian, musika barra-barra eta militarren algarak noizbehinka. Gure amaiera ote zen?

Bat-batean, autoa gelditu eta argiak itsutu gintuen. Arrastaka atera eta amagandik banandu ninduten. Kanpamendu militar hartan, txabola antzeko leku itxian sartu ninduten, haur mordoxka batekin batera. Beldurraren beldurrez isilik zeuden. Giroak gehiago urduritu ninduen. Gainera, auskalo ama non izango ote zen, astakilo haiek edozer egiteko prest baitzeuden. Negarrari ezin eutsiz, ideia horiek baztertzea erabaki nuen eta egoera berrira egokitzen saiatu nintzen. Bertan, egun pare bat pasatu nituen, eta inoiz ahaztuko ez dudana egoera bat bizi izan nuen: txabolatik kanpora ateratzen uzten ziguten momentu horietako batean, haur bat korrika atera zen, ihes egiteko asmoz, eta, libre izateko metro batzuk falta zitzaizkionean, militar batek pistola atera eta inongo zalantzarik gabe, txikia korrika zihoala, bizkarrean tiro egin zion. Gau asko pasa nituen lorik egin gabe, irudia burutik kendu ezinik. Eta ez zen azkeneko aldia izango horrelako zerbait ikusten nuena, bertan maiz gertatzen baitziren horrelako gauzak. Egunak pasa-ahala, nire beldurra amorru bihurtzen joan zen. Bertako militarrek nahi zuten guztia egiten zuten gurekin, baita gure amekin ere. Egun guztia lanean pasatzen genuen, gora eta behera beraien esanak betetzen; eta, baten bati uko egiten bazenion, zigorrak zetozen bata besteari atzetik.

Egun madarikatu haietako batean, denok lanean geunden unean, sirena zaratatsu bat hasi zen joka. Soinua jasan ezina zen, altua, sakona eta, bat-batean, militar guztiak korrika atera ziren. Txabola batean sartu ziren presaka eta, segundo batzuk barruan igaro ondoren, denak armak eskuan, ilaretan jarri ziren. Haietako batek hitz arraro batzuk esan zituen eta tropa korrika abiatu zen bere atzetik. Seguruenik buruzagia izango zen eta gure herrian egin zuten berbera egiteko agindua ematen ari zen. Kanpamendua ia hutsik geratu zen eta, bertan, zauritutako militarrek bakarrik geratu ziren gu zaintzen. Egoera berriari etekina atera nahirik, bertan geunden umeak garbi ikusi genuen ihes egiteko aukera. Elkar ezagutzen ez genuen arren, begirada bakar batekin elkar ulertu genuen. Unea iritsi zen, orain edo inoiz ere ez!

Bazkal ondorengo unea aukeratu genuen gure asmoa garatzeko. Militarren gabeziak aprobetxatuz, plana martxan jarri genuen: gure txabolari torloju guztiak kendu genizkion; orduan, umeok amak zeuden txabolaren ingurura joan ginen gutako bat izan ezik. Txiki hark

gure txabolako egur bat mugitu eta txabola behera erori zen; orduan, militar elbarri guztiak txabolara hurbildu ziren. Guk, bitartean, amen txabolako ateak ireki genituen eta denok korrika atera ginen. Militarrek, zaurituta zeudenez, ezin izan zuten gu harrapatu eta ia denok ihes egitea lortu genuen.

Kaos handia zabaldu zen, denok korrika, ihes egiteko esperantzan, ume asko bere ama aurkitu ezinik, eta ni haietako bat nintzen. Hara eta hona begiratzen nuen, baina inon ez nire ama. Non egongo ote zen? Berririo ere bakarrik? Ihes egin genuen guztiok baso zuloan sartu ginen; auskalo non geunden! Gaua iritsi zen eta nire amak agertu gabe jarraitzen zuen. Ni bakar-bakarrik nengoen, lurrean eserita, eta ume txiki-txiki bat eskuetan zuen emakume emankor batek eskua luzatu eta berarekin egoteko adierazi zidan. Bere magalean eseri nintzen ume txikiaren alboan, eta lasai egoteko esan zidan, nire ama ondo egongo zela-eta, hura agertu bitartean, berak zainduko ninduela. Lagun berriaren babesean, eskua poltsikoan sartu eta altxor bat balitz bezala gordetzen nuen koloretako zapia usaindu nuen. Amaren usaina zuen. Non ote zen?

Hurrengo egunetan, talde txikitan antolatzen hasi ginen. Nork bere bidea eta bere erritmoa jarraitzen genuen, nahiz eta helburu berdina izan: kostaldera gerturatzea. Askatasunaren bidea zen hura, militarrengandik eta arriskutik ihes egiteko bide bakarra. Denen ahotan zen Pointe-Noire. Irakurtzen ez nekien arren, hori jartzen omen zuen kartel handi hartan. Porturaino joan ginen eta inoiz ikusi gabeko itsasontzi erraldoiak lehen aldiz ikusi nituen. Beti militarrek agertuko ziren beldurrez, talde txikitan eta ezkutuan mugitzen ginen. Askotan egunez ezkutatu eta gauez mugitzen ginen. Leher eginda geunden, ume txikiak bereziki.

Aste haietan zaindu ninduen ama berriarekin, egunetik egunera lotuago sentitzen nintzen, baina neure benetako ama ezin ordezkatu. Gauetan, koloretako zapia estu eutsita lo hartzen nuen. Zapiak amaren usaina zuen oraindik, eta usaintzen nuen bakoitzean, nire ama ondoan zela imajinatzen nuen. Izugarri gabesten nuen.

Amarekin ametsetan nengoen gau hartan ere; halako-batean, zaintzen ninduen amak esnatu ninduen; itsasontzira igotzeko unea zela eta ihes egiteko gure txanda zela xuxurlatu zidan. Ilunpetan, esnatu berriko hotzetan, egurrezko malda batetik gora, ontzi handi bateko sotora sartu ginen. Ez ginen taldetxo bakarra izan, izugarria baitzen gordeleku hura. Egurrezko kaxak, maletak, poltsa eta animaliak ere topatu genituen non-nahi. Beltzune hartan, leihorik gabe, usain arraroen artean, leku egiten saiatu ginen. Bihozkada batek bultzatuta, koloretako zapia poltsikotik atera eta eskuetan tinko eutsita, atzealdean geneukan taldetxora hurbildu nintzen. Zapia sudurrera inguratu eta hasperen handi baten ondoren, ehizeko txakurrek beraien harrapakina jarraitzen duten moduan, ama bertan topatuko nuen sentsazioa neukan. Eta zuzen nengoen: zortzi bat emakume lurrean eserita zeuden ingurura begira. Begietan beldurra besterik ez zitzaien sumatzen, baina, horietako batek begirada galdua zeukan, tristurak jana. Birritan begiratu behar izan nion ama zela ohartzeko. Elkarren begiradak gurutzatu zirenean, norbaitek argia piztu eta ama argiztatu izan balu bezala sentitu nuen. Ama altxatzearekin bat, ni korrika irten nintzen bere besoetara. Une berezia izan zen hura! Irudi eta sentsazio pila buruan, baina bereziki amaren goxotasuna sentitu nuen. Momentu hartan jabetu nintzen egun guzti haietan zaindu ninduen beste "ama" txeratsua alboan nuela, guztiz hunkituta. Negar malkoaz beterik zuen aurpegia. Beregana gerturatu eta ama aurkeztu nion. A ze besarkada euren ere!!

Luze eta neketsu joan ziren egunak bertan. Iluntzetan, itsasontziaren kanpoaldera igotzen ginen kresal usain eta aire garbi pittin bat arnastera, baina gainontzeko orduak sotoan egiten

genituen. Aspertuta, maiz beldurtuta eta askotan etsita. Baina iritsi, iritsi ginen nonbaitera. Itsasontziak normalean baino geldialdi luzeagoa egin zuen eta gau batean jaisteko unea zela adierazi ziguten. Soto hartan pertsona gehiegi geunden diskrezioz jaisteko. Nork bere unea aukeratu eta jaitsi beharko zuen. Beraz, guztietaz agurtu eta bakoitzak bere bidea egiteko unea iritsi zen.

Aterantz hurbildu nintzen amarekin. Ez genekien noiz izango zen ihes egiteko unerik egokiena, baina, bat-batean, gizon batek amari bizkarrean ukitu eta ulertzen ez genuen hizkuntza batean mezuren bat eman zionean, gure ihes egiteko unea zela ulertu genuen. Korrika atera ginen itsasontzitik. Ni amaren eskutik eutsita nindoan, nora gindoazen jakin gabe. Nire bizitzako momentu gordinenetan bezala, gau hartan iluntasuna zen nagusi. Atera bezain pronto, kutxa handi batzuen atzean arnasestuka gelditu ginen. Aurrera egin beharra geneukan eta, kaian lanean ari zirenen zaratak aprobeztatuz, portuko irteera aurkitzen saiatu ginen. Izugarritzako suertea izan genuen eta, norbaitek gidatu izan bagindu bezala, segituan egin genuen langarekin topo. Kamioiak, sartu-irtenean zebiltzan portura iritsitako produktuak kargatzen. Aurretik, plana egina izango bagenu bezala, langara iritsi orduko kamioi bat etorri eta zabaldu egin zen. Askatasunaren langa zabaldu zen guretzako .

Gau hartan, industria-gune batean egin genuen lo. Oso nekatuta geunden eta indarrak hartu behar izan genituen hurrengo egunetan zetorkionari aurre egiteko. Leku hotz eta deserosoa izan arren, nekeak eraginda, segituan hartu genuen lo.

Egunsentiaren lehen argiekin bat, motor hotsak hasi ziren. Lanera zetozen langileen auto eta furgonetek inguruko bazterrak bete zituzten. Bertatik altxatu eta joateko garaia. Lehen pausoak ematerako, mutiko gazte bat gerturatu zitzaigun zerbait galdezka, baina elkar ulertzeko aukerarik ez genuen izan. Bat-batean, eskua poltsikora eramanez eta paper puska bat atera zuen. Bertan zeozer idatzi eta amari eman zion. Ulertu ez ginen arren, garbi zegoen helbide bat zela. Harengan konfiantza jarritz, helbidearen bila hasi ziren eta, kalean topatzen genuen jendeari papera erakutsiz, mugara gerturatzen joan ginen.

Aterpetxea jartzen zuen kartel aurrean geratu ginen. Hura zen papereko helbidea, baina zer ote zen hura? Zer topatuko ote genuen atearen beste aldean? Beldur izan ginen, baina, ireki bezain pronto, lasaitua hartu genuen. Irrifar handi batez agurtu gintuen neska gazte bat zegoen, eskuaz barrura sartzera gonbidatuz. Inguruan, jatorri ezberdinetako haur, gazte eta hain gazteak ez zirenak ikusi genituen. Zegoen giro lasaiagatik, mutiko gazte hark salbatu gintuela jakin genuen. Aterpetxean, aspaldian sentitu ez genuen babesa eta goxotasuna eskaini ziguten; baita jantzi eta janaria ere. Baina gauza guzti haien gainetik, gure egoera legalizatzeko laguntza izango zen guretzako garrantzitsuena. Ana izango zen gure laguntzaile berria.

Astebete inguru egon ginen Pasaiaiko aterpetxean. Anak, S.O.S. arrazakeriaren aurkako langileak, izugarri lagundu zigun paperak eta tramiteak egiten. Berari esker, errefuxiatu legalak bihurtu gara eta biziki eskertuko diogu guregatik egin duen guztia. Laguntzaile bakarra ez zen Ana izan, egun haietan Abdala ere ezagutu baikenuen. Bera jatorriz nigeriarra da, eta Ordizia izeneko herri batean familia zuela esan eta haiekin egun batzuk pasatzera gonbidatu gintuen. Harrez gero, Ordizian bizi gara.

Ordizia kolore anitzeko herria da, eta lehen momentutik onartuak sentitu gara bertan. Hasieran hizkuntza traba bat izan zen, baina, gaur egun, biziki maite dut euskara. Nire oraina Ordizian dagoen arren, Kongora bueltatzea da nire ametsa.

Gauetan, ohera sartzen naizenean, ez ditut beti amets gozoak izaten. Gau ilun eta hotz haietako irudi eta sentrazioak maiz etortzen baitzaizkit burura. Horrelakoetan, oraindik ere ohe ondoko mahaitxoan gordetzen dudak koloretako zapiak hartu eta estuki besarkatzen dut.

Ez dakit etorkizunak zer opa didan, baina aurre egiteko prest nago.